



Zipotzetan haur eta gazteen protagonismoa indartuz

Egitarau zabala antolatu dute Groseko jai batzordeak eta auzoko hamaika eragilek datorren ostegunetik igandera. Jai batzordeko Kai Kerejetak azaldu dizkigu egitarauaren nondik norakoak.

📷 Xalba Ramirez Cruz

Aruzo handia da Gros. Eta jaiak ere halakoxeak ditu. 35 urtez jada, uztailaren hirugarren astean ospatzen dira Zipotz jaiak. Kai Kerejeta jai batzordean dabil azken urteotan, eta urduri baina gogotsu dago jaiei ongietorria egiteko: «Azken gauzatxoak lotzen ari gara, baina dena bideratuta dago».

Bi dira Kerejetak nabarmendu dituen berritasunak: haurren zein

gazteen egitarauak. «Haurren egitaraua dezente ari da puzten eta ilusioa pizten digu horrek», azaldu du. Hainbat dira haurrentzat espresuki antolatzen ari diren jarduerak: Haurren danborrada, futbol txapelketa, jolasak... «Haurren egitaraua egiteko, guraso asko ari dira antolakuntzan. Ez soilik jaietarako, urte osoan zehar hainbat jarduera ari dira egiten: Gau Beltza, inauteriak, San Tomas...». Eta

ez alferrik. Haurren futbol txapelketan 160 bat neska-mutil arituko dira aurtan.

Gazteen egitaraua

Bestetik, gazteen egitaraua «oso ondo doa», Kerejetaren ustez. Lehenago gazte egun indartsua egiten zen, eta urte batzuez «gainbeheran» egon den arren, forma hartzen ari da elektrotxaranga eta bazkariarekin. «Ez diogu gazte eguna deitzen, egun horretan gauza mordo dagoelako, baina gazte eguneko kartela atera da aurtan eta oso pozgarria da», dio jai batzordeko kideak.

Berezitasun bat izango da aurtan: rally poteoa. Auzoan zehar, tabernaz taberna, jolasak eta probak eginez egingo den poteoa da, eta hainbat kuadrilla ibiliko dira hori prestatzen. Elektrotxarangaren ordua aldatu egin dute, denbora eman ahal izateko. «Ostiralean, beraz, hiru poteo izango dira egunean! Goizean, trikipoteoa, gero rally poteoa eta azkenik elektrotxaranga».

Egitarauaren indartze hau, ordea, ez da kasualitatez gertatu. Auzo Giro lanaldeak urteak darama adin eta sektore

ezberdinetako jendea antolatzen eta fruituak eman ditu. «Gazte talde batzuk gerturatu dira, baita ere, eta jai batzordean hasi dira», azaldu du Kerejetak. Jai batzordearen egoera «oso polita» dela azaldu du: «Azkeneko bi urteetan lantalde guztietan sartu da jende berria, izugarritzko aldaketa emanez».

Auzo bizia

Talde askok antolatzen dituzte jaiak, ez soilik jai batzordeak, —Surf Indarra, Urban 13, tabernak..— eta Kerejeta rentzat hori da gakoa: «Oso aberatsa da guztien parte hartzea. Ez dugu nahi jai batzordea izatea jaiak antolatzen dituen, auzoak antolatu behar ditu. Gure egitekoa hori sustatzea da».

Aurten, kuadrillen jaitsiera berreskuratuko dute, baina oraingo honetan Katalunia plazatik irtengo dira, eta ez Manteotik

Groseko auzo elkarteak mugimendu handia du urtean zehar, Kerejaren ustez: «Jaien ikuspegitik ere, oso garrantzitsua da auzo antolatu bat ikustea. Jaiak badira komunitate bat bizirik dagoela erakusten duen une bat, eta Grosen komunitatea bizirik dago eta, zentzu horretan, borroka ezberdinak bizirik daudela irudikatzen dugu: etxebizitzaren alde, jai herrikoien alde... Saretxe etxebizitza sindikatuak, adibidez, pintxo-pote bat antolatu du, urtean zehar lanean izan diren auzokide guztiak batu eta elkarrekin ospatzeko».

Euskal Jai egunarekin amaituko dira jaiak, eta Kerejeta rentzat «oso garrantzitsua» da egun hori: «Jaiak garrantzitsuak dira izugarritzko auzolana direlako, auzoko jende pila bat gerturatzen delako gauzak antolatzen. Eta gainera, bada gure komunitatea bizirik dagoela erakusten duen egun garrantzitsua. Igandea guretzako egun oso berezia da horretarako». ●



OSTEGUNA 17

16:30

Kamiseta eta aurpegi margotzea haur, gazte zein helduentzat Txofre plazan (kamiseta zuriak etxetik ekarri).

18:00

Kuadrillen jaitsiera. Katalunia plazan hasita.

18:30

Pintxo-potea Saretxeren eskutik, Katalunia plazan.

Txintxera, Klipa eta Txorroskilo pailazo taldearen *Txanpon baten truke* ikuskizuna Txofre plazan, Okendo Kultur Etxeak antolatuta.

19:00

Ereski abesbatzaren emanaldia Okendo Kultur Etxean.

19:30

Sloww Guissona dantza jaialdia, Mala Gissonaren eskutik. Pregoia. Ondoren, erraldoi eta buruhandiekin kalejira Txofre plazatik abiatuta.

20:00

Sahieski errea Txofre plazan. Garagardo dastaketa, Katalunia plazan Mala Gissonaren eskutik.

20:45

Erraldoiak bukatutakoan, txokolate jana Nafarroa Beherea plazan

21:00

DJ Mikeltxiren kontzertua Txofre plazan. Kontzertuak Katalunia plazan: Eira, Adala & Siva, Karlos Nguema, Skareggekasko eta Revolutionary Brothers.

OSTIRALA 18

10:30

Hamaiketako Garagune-Usandizagaren egoitzan, Garaguneren eskutik.

12:00

Erraldoi eta buruhandiekin kalejira Nafarroa Beherea plazatik.

12:30

Trikipotea Katalunia plazatik abiatuta auzoko kaleetan zehar.

14:00

Gazte bazkaria eta ondoren Bingo Musikatua Katalunia plazan.

16:00

Rally Potea Katalunia plazatik abiatuta. Pala eta pilota finala Saguesko frontoian.

17:30

Haur danborrada auzoko kaleetan zehar, Txofre plazatik abiatuta.

18:00

Grafiti erakustaldia Txofre plazan. *Break* Ikuskizuna eta auzotar guztientzako tailerra Txofre plazan.

19:00

Eresmin abesbatzaren kontzertua Okendo Kultur Etxean. Hamarru elektrotxaranga auzoko kaleetan zehar, Katalunia plazatik abiatuta.

19:30

Haurren afaria Txofre plazan. Radio Rebelde Covers taldearen kontzertua Mendi Berri tabernan (5. urteurrena).

**20:00**

Sardina jatea Txofre plazan.
Andoni Oilokiegi Txofre plazan.

20:15

Palestinar askapen borrokarekin elkartasun argazkia, Txofreko eskaileretan.

21:00

Zezensuzkoa Txofre plazan.

22:00

Kontzertuak Katalunia plazan:
Badmintones, Aimarz eta 3haiZra DJ-a.

LARUNBATA 19

09:30 etatik aurrera

Haurrentzako futbito txapelketa Manteoko frontoian.

10:00-13:00

Surf Ginkana Zurriola hondartzan.

11:00

Gaztetxoentzat eta helduentzat xakea Txofre plazan.
Haurrentzako jolasak Katalunia plazan.

12:00-15:30

Tabernen arteko pintxo lehiaketa.

12:00

Futbito txapelketaren finala Manteo kiroldegian.
Txaranga auzoko kaleetan zehar, Nafarroa Beherea plazatik abiatuta.

13:30

Paella jatea Saguesen, Groseko Surf Indarra-ren eskutik.

14:30

Kantu bazkaria Katalunia plazan, ondoren kantu jira.

16:30

Mini-Diskoa Kantu Kolore Txulalai Saguesen.
Mus txapelketa Gorosti tabernan, Txofre plazan.

17:00

Erraldoi eta buruhandiekin kalejira auzoko kaleetan zehar, Nafarroa Beherea plazatik abiatuta.

18:00

Joselontxos txaranga Saguesen.
Errima txapelketa eta Showcases Saguesko frontoian Urban Hamahiruren eskutik.
Karate erakustaldia Karkizano kalean, Karate-do Saito eskolaren eskutik.

Euskaraz hitz egiten badakizu?

Euskara ikastaroak

 **hitzez**
euskaltegia

Ondo pasa
Zipotz
jaietan!

**18:30**

Helduen danborrada auzoko kaleetan zehar, Nafarroa Beherea plazatik abiatuta.

19:30

The Sally Doss' Band taldearen kontzertua La Kaba tabernan (Miguel Imaz 7). Txokolate jana Nafarroa Beherea plazan erraldoiak bukatutakoan.

20:00

Sahieski errea Txofre plazan.

21:00

Kontzertuak Saguesen: Loidi's, Watxuwei, Glory howl eta Txiltxoko + Peye Rose. Peyote & paco, pop-rock covers emanaldia Txofre plazan.

21:30

DJ Jak Zabaleta kalean

22:00

Kontzertuak Katalunia plazan: Malko, Lukiek eta Sedientos de Cumbia.

IGANDEA 20

Euskal Jaia. Artisau azoka eta talogileak San Frantzisko kalean

10:30

Albokariak auzoko kaleetan zehar.

11:00

Elkarte eta kuadrillen arteko marmitako lehiaketa Katalunia plazan, Marruma elkartearen eskutik.

11:30

Haurrentzako Herri kirolak Katalunia plazan.

12:00

Sagardo dastaketa Katalunia plazan.

12:30

Bertso saioa Katalunia plazan. Bertsolariak: Sustrai Colina, Nerea Ibarzabal, Jon Martin, Iñaki Apalategi. Tortilla lehiaketa Katalunia plazan.

14:30

Kantu bazkaria Katalunia plazan.

17:00

Kuxkuxtu Txaranga kantalaria Katalunia plazatik.

18:00

Zirika Zirkus: *Aurkitu Gabeko Altxorra* emanaldia Katalunia plazan, Okendo Kultur Etxearen eskutik.

19:00

Euskal dantza gidatuak Katalunia plazan.

20:00

Laket Erromeria Katalunia plazan.

21:15

Zezensuzkoa Katalunia plazan.

00:00

Jaien amaiera. Datorren urtera arte!



LAIA
ABOKATUAK

Zorionak jaiak auzotik eta auzoarentzat aurrera ateratzen zabilatzaten guztioi.

Gora Zipotz jaiak !



Tel.: 943-42 92 27 / 688-61 35 30
Mundaiz bidea, 10, 24A, 20012 Donostia



aek
euskaraz praktikoa

Udan ere euskaraz eroso

UDAKO IKASTAROAK DONOSTIAKO AEKn

Grosetko Irrintzi AEKn (Iztueta 3, behe) **aurrez aurreko IKASTAROAK:**

TRINKOAK:

- Uztailaren 4 ordu egunero: A1 eta A2 mailak. Uztailaren 2tik 30era / 195€
- Irailean B1, B2 eta C1 azterketak prestatzeko ikastaroak: Irailean 2,5 ordu egunero. Etxerako lanak eta tutoretzak. Irailaren 1etik 30era / 195€

Diruz lagunduriko ikastaroak

Informazioa: Zure euskarrekin eta donostia@aec.eus
943 32 76 11 eta 607 59 63 44 telefonoetan.

BARNETEGIAK: Euskalduntzea A2-B1-B2-C1 mailak
<https://www.aek.eus/eu/barnetegiak>

Informazio gehiago

